



## Urnietako 4 ikastetxeak hezkuntza sistema hobetzeko proiektu berritzaile batean murgilduta

“Hezkuntza hobetu: jakin, partekatu eta elkarriketatu” lelopean Euskadiko Eskola Kontseiluak eta Urnietako Udalak sustaturiko proiektuan lanean dihardute herriko lau ikastetxeek. Proiektu berritzaile bat da, non 3 udalerrik soilik hartzen duten parte: Santurtzik, Laguardiak eta Urnietak. Helburua berriz, hezkuntzari buruzko eztabaida zorrotz eta sakon bat sortzea egungo sisteman funtzionatzen ez duten gauzak hautemateko eta aldatzeko. Azken finean, hezkuntza sistema hobetzea eta egungo testuingurura eta beharretara egokitzea. Horretarako eragile guztiak barneratu nahi dira proiektuan: irakasleak, ikasleak eta baita guraso eta familiak ere.

### Eusko Legebiltzarrean agerraldia proiektuaren amaieran

Proiektua bideratzeko ondorengo kideez osaturiko talde bultzatzailea osatu zuten Urnietan: Neli Zaitegi Euskadiko Eskola Kontseiluko zuzendaria, Mikel Pagola Urnietako alkatea eta herriko lau ikastetxetako zuzendaritzak. Aurreko ikasturtearen amaieratik dihardute lanean eta laster hasiko da proiektua argia ikusten, izan ere,

lehen hiruhilekoan eramango da aurrera. Hiru fase desberdinetan gauzatuko da, irakasleentzat, ikasleentzat eta familientzat bideraturiko ekintzak egongo direlarik. Horietako lehena azaroaren 8an ospatuko da eta ikastetxeetako irakasleei zuzenduta egongo da. Hezkuntzako gai desberdinen inguruan hausnartu eta eztabaidatuko dute: elkarbizitza, euskara, aniztasuna eta ebaluazioa, besteak beste. Gai garrantzitsu asko daude, baina “kezka gehien eragiten diguten gaiak direlako” hautatu dituztela diote ikastetxeetako ordezkariak. Izan ere, euskararen erabilera gero eta txikiagoa da eta aniztasuna gero eta anitzagoa, esaterako.

Proiektua 2018ko urtarrilean amaituko da. Alde batetik egindako lan guztiarekin ateratako ondorioak Udal bilkura batean aurkeztuko dira. Bestetik, Eusko Legebiltzarrean agerraldi bat aurreikusten da, bertan ikastetxe guztietako ordezkariak hartuko dute parte. Agerraldi hori hezkuntza sistemaren gainean buruturiko hausnarketaren ondorioak eta hobetzeko proposamenak Euskadiko ordezkari politikogorenei helarazteko baliatuko da.

### Ikastetxeei ahotsa emango zaie

Lau ikastetxeetako ordezkariak eskertuta daude emandako aukerarekin eta proiektu interesgarria dela iritziz dute: “Urnietan aukeratu izan da Gipuzkoa osoan proiektu berritzaile honetan parte hartzeko eta guretzat aukera erakargarria da” adierazi du Juan Luis Alkorta Egape HH-LH-ko zuzendariak. Dena den, aitortzen dute lan karga gehigarri bat suposatzen diela, izan ere, egunerokoarekin oso lanpetuta ibiltzen dira. Halere, Zaitegik proiektua aurkeztutakoan adierazi zien moduan “hau ez da gasu bat, inbertsio bat baizik”. Halaber, ikastetxeek gogorazi dute gizartea etengabeko eraldaketa batean dagoenez, beraiek ere momentuoro behar eta errealitate berrietara egokitu behar dutela eta horretarako hausnarketak egiten dituztela: “Iaz hezkuntza proiektua gauzatu genuenean hausnarketa sakon bat burutu genuen, hezkuntza proiektuarekin ere beste horrenbeste egin genuen. Beraz, etengabe hausnartzen dugu” kontatu du Amaia Amutxastegi Egape ikastola BHI-ko zuzendariak. Hori bai, Salesiar ikastetxeko zuzendari Pedagogikoak Agustin Urretabizkaik adierazi

duen moduan "egia da hausnarketak egitera ohituta gaudela, baina hausnarketa horiek gure ikastetxe barruan geratzen dira, Oraingoan aldiz, parlamentura joango dira eta horrek ematen dio garrantzi bat".

Halaber, badago beste alderdi interesgarri bat Martin Iztueta Presentacion de Maria ikastetxeko arduradunaren ustez: "oraingo honetan partekatua izango da hausnarketa eta hori izango da berritasun nagusia. Ikastetxe desberdinetako irakasleok hausnarketa eta ezagutza partekatuko ditugulako. Izan ere, oso gauza gutxi egin ditugu herrian lau ikastetxeak batera. Gainera, familiak sartzea ere garrantzitsua da, askotan prozesu hauetatik kanpo geratzen dira eta". Urretabizkaiak ondorengo gehitu du: "horrelako foroetan gurasoek egiten dituzten ekarpenak izaten dira onak eta ez isilean egiten dituztenak. Horiek ez direlako ondo bideratzen eta horretarako jardunaldi hauek mesedegarriak dira. Beraz parte hartzea eta ekarpenak egitera animatzen ditugu". Bide beretik mintzatu da Alkorta ere: "aitzaki bat izan da herriko ikastetxeak norabide batean elkartzeko. Proiektu pilotua denez etengabe aldatetak eta egokitzapenak egin behar dira, baina horrela ere ikasten da. Honek momentu batez geratzeko eta pentsatzeko aukera ematen digu eta hori positiboa da. Guretzat baliagarria izango da eta horrekin geratu behar dugu".

Urretabizkaiak lehen aipatu moduan legebiltzarrera joateak badu bere garrantzia, izan ere, hezkuntzako eragileei ahotsa emango zaiela esan nahi du. Eta hori da hain zuzen, Zaitegiren beste helburuetako bat, ohiko piramidearen ordena iraultzea eta irakasleak entzutea, Iztuetak dioen moduan "erabakiak goitik behera hartzen dira eta ez behetik gora". Horretaz aparte, irakasleei merezi duten aitortza soziala ematea ere bilatzen du ekimenak. Haatik, "modu orokorrean egia da irakasleak ez gaudela oso baloratuta" baina "harreman hurbilean, gurasoengandik oso balorazio ona jasotzen dugu" zehaztu du Amutxas-

tegik. Hitz horiekin ados dago Alkorta ere: "Urrietan urte asko daramatzagu denok eta jendearengandik berotasun handia jasotzen dugu eta horrek asko balio du niretzat. Gero entzungo duzu irakaslearen irudia txarra dela, baina ez da guk jasotzen duguna".

Bestalde, argi dago ikasketa prozesuko protagonista nagusiak ikasleak direla eta haiek ere izango dute merezi duten lekua proiektuan. Oraindik gaia aurreratu baino ez diete egin, baina ziur daude ondo erantzungo dutela: "askotan sorpresa hartzen da gazteei gauzak egiteko eta proposatzeko askatasuna emandakoan egiten duten ekarpen pilarekin. Normalean parte hartzen dute eta oso ondo moldatzen dira" kontatu du Urretabizkaiak. Alkortak ostera, ikasleek egiten dituzten eskaera txukun horiek ondoren irakasleek bideratu beharko dituztela jarri du mahai gainean: "guk politikoei eskatzen diegun moduan ikasleek guri eskatutakoari erantzun egoki bat eman beharko diogu".

### Emaitzak baliagarriak izatea espero da

Proiektu pilotua izaki, zalantzak dituzte benetan izango duen eraginaren gainean, nahiz eta jakin badakiten legebiltzarrera joango direla. "Gera daiteke zerbait folklorikoan, parlamentuan. Akaso izan dezake errekorrido handiagoa. Urrietan ibilbidea egitea ere ez litzateke gutxi. Dena den, hori ez dago gure esku. Guk gure lana ondo egingo dugu eta gero ikusiko da" dio Alkortak. Hori da Zaitegik goraiatu duena, Urrietako Udala eta ikastetxeak egiten ari diren lana eta erakusten ari diren jarrera.

Mikel Pagolak ere esker oneko hitzak baino ez ditu lau ikastetxeetat egiten ari diren esfortzu guztiarengatik eta hezkuntzaren garrantzia azpimarratuz amaitu du: "hezkuntza da gizarte demokratiko, aurreratu, justu eta kohesionatu bat sortzeko oinarria, eta ezinbestekoak dira horrelako prozesuak pixkanaka hezkuntza hobetzeko eta egungo beharretara egokitzeko".

**"Mejorar la educación: saber, dialogar y aportar" es el lema del proyecto promovido por el Consejo Escolar de Euskadi y el Ayuntamiento de Urnieta en el que ya trabajan de forma conjunta los 4 centros educativos de Urnieta. El objetivo es generar un debate sereno, riguroso y profundo sobre la situación actual de la educación para detectar las cosas que no funcionan y tratar mejorarlas y adaptarlas a las necesidades de hoy en día.**

**El proyecto se trabajará en el primer trimestre del curso y se desarrolla por fases. Tiene previstas actividades para el alumnado, el profesorado y las familias, ya que se pretende involucrar a toda la comunidad escolar del municipio. El trabajo culminará en enero con la presentación de las conclusiones del trabajo realizado en un Pleno municipal convocado al efecto. Posteriormente está prevista una comparecencia en el Parlamento Vasco con representantes de todos los centros que participan en el proyecto. El objeto de la misma será hacer llegar a los máximos representantes institucionales de Euskadi el resultado de la reflexión llevada a cabo. En el proyecto también participan los municipios de Santurtzi y Laguardia.**



Egape Ikastola.



Presentacion de Maria ikastetxea.



Egape Ikastola.



Salesiarrak ikastetxea.